

Google Duo

Google Ireland Limited ("Google")

Gordon House, Barrow Street, Dublin 4, Irlanda

<https://support.google.com/>

2020ko abenduaren 21ean jarriko da indarrean

Kontratuaren laburpena

- Kontratuaren laburpenak gure zerbitzu-eskaintzaren gako nagusiak azaltzen ditu, Europar Batasuneko legediari jarraikiz¹.
-
- Zerbitzu-eskaintzak alderatzen laguntzea da helburua.
- Zerbitzu-eskaintzari buruzko informazio guztia beste dokumentu batzuetan aurkituko duzu.

Zerbitzuak

Hainbat gailu eta plataformatarako bideo-komunikazioko zerbitzua da Google Duo, eta web-interfaze edo aplikazio baten bidez eskaintzen da. Google Duo komunikatzeko erabiltzeko, beharrezkoa da Internetera konektatuta egotea. Google Duo zentzuz eta kontu handiz eskaintzen du Google-k, baina ez du bermatzen ematen gutxieneko kalitate-mailarik.

Prezioa

Google Duo doan eskaintzen da, eta, hura erabiltzeko, beharrezkoa da Google-ren Zerbitzu-baldintzak gordetzea (<https://policies.google.com/terms?hl=eu>).

Iraupena, berritzea eta deuseztatzea

Google Duo berehala erabil dezakezu erregistratu ostean. Ez duzu Google Duo epe finko batez erabili behar eta nahi duzunean utz diezaiokezu hura erabiltzeari.

Desgaitasunen bat duten erabiltzaileentzako eginbideak

Azpitituluak aktiba ditzakezu Google Duo erabiltzen duzunean. Xehetasun gehiago lortzeko, joan hona: <https://support.google.com/duo/answer/7660538?hl=en&co=GENIE.Platform=Android>

Bestelako informazio garrantzitsua

Bezerearentzako laguntza-zerbitzua: Google Duo-rekin laguntza behar baduzu, joan hona:

<https://support.google.com/>.

Auziak: Baliteke <https://ec.europa.eu/consumers/odr/main/?event=main.adr.show2> zerrendan agertzen diren hornitzaileetako batera jo ahal izatea auziak ebazteko, edo beste batera, zure herrialdeko legediari jarraikiz. Xehetasun gehiago lortzeko, ikusi Google-ren Zerbitzu-baldintzak.

Segurtasun-gertakariak: Google-k arazoak kudeatzeko programa zorrotz bat darabil etengabe, segurtasunari edo pribatutasunari buruzko arazoak berehala identifikatzeko eta haiei erantzuteko. Horrez gain, Google-k segurtasunerako egiaztapen-zerrenda bat du, sareko segurtasuna errazago kudea dezazun.

Datu pertsonalak: Google Duo-n erregistratzeko, beharrezkoa da telefono-zenbakia, helbide elektronikoa edo biak jakinaraztea. Google-ren Pribatutasun-gidalerroek (<https://policies.google.com/privacy?hl=eu>) informazio gehiago eskaintzen dute Google Duo erabiltzean Google-k biltzen dituen datu pertsonalei buruz. Google-ren Pribatutasun-gidalerroak ez dira zu eta Google-ren arteko kontratuaren edo laburpen honen parte.

¹ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018/1972 Zuzentarauaren 102(3). artikulua, 2018ko abenduaren 11koa, Komunikazio Elektronikoen Europako Kodea ezartzen duena (EO L 321, 2018/12/17, 36. or.).